

1.- Euskal Eskola Publikoa "HARATAGO" dokumentua.

Abenduaren 12an, "Eskola EHUNTZEN" lelopean aurkeztu zen "HARATAGO" dokumentua, EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteek adostua. Dokumentu estrategiko bat da, eta bertan biltzen da Euskal Irakaskuntza Publikoak aurrez aurre dituen erronka nagusien laburpen baten lehenengo atala. Beraz, ezinbesteko erreferentzia izan nahi du, euskal hezkuntzaren plangintza edo proiektu osoaren eztabaida-prozesuan. Bestalde, hiru elkarteok euskal eskola publikoa irudikatuko duen irudia erakutsi genuen jendaurrean:



2.- 2013-2014 ikasturteko matrikulazio-kanpaina

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra izango da matrikulak egiteko epea, derrigorrezko hezkuntzari dagokionez hain zuzen ere (Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza-DBH). Ikastetxe publikoek beren publizitate kanpainak egin dezaten sustatzeko, BAIKARAK, aurreko urteetan egin bezala, 60 euroko diru laguntza emango die ikastetxeei, tokiko komunikabideetan publizitatea jartzen laguntzeko.

Aurreko urteetan egin bezala, eta matrikulazio kanpaina horri lotuta, EHIGEk kanpaina paralelo bat egingo du Erljioaren gaiari dagokionez. Gure errebindikazioaren helburu nagusia erlijioa eskola publikoetatik kanpo gelditzea bada ere, epe laburreko helburu gisa borrokan jarraituko dugu familiek ez ditzaten beren seme-alabak erlijio gaian sartu.

Bestalde, eskola publikoan izena ematera bultzatzen duen irrati iragarkia esaldi honekin amaituko da: ...eta gogoratu erlijiorik gabeko eskola publikoa ere hauta dezakezula.

3.- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sail berriari buruzko berriak (organigrama berria, aurrekontuak...)

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren organigrama berria.

Sail kopurua murrizteko helburuarekin, berrikuntzak izan dira, eta bateratu egin dira Kultura eta Hezkuntza sailak. Era horretara, "Hezkuntza, Hizkuntz Politika eta Kultura" sail berria sortu da. Sail horren arduradun izendatu da, halaber, **CRISTINA URIARTE TOLEDO**, EHUko Kimika Fakultateko Katedraduna eta Gipuzkoako kanpuseko erretoreordea 2004-2012 urteetan. Donostiako Plan Estrategikoaren lehendakari lanetan ere jardun du.

Sailburuaren Kabineteko Zuzendaria: José Manuel Bujanda
Komunikazioko Zuzendaria: Aitzol Zubizarreta

Hezkuntzako Sailburuordea: Arantxa Aurrekoetxea Bilbao. EAJko legebiltzarkidea azken legegintzaldietan

- Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza: Begoña Garamendi Ibarra
- Ikastetxeen Zuzendaritza: Jesús Fernández Ibáñez
- ISEI-IVEIko Zuzendaria: Patxi Xabier Aizpurua Telleria
- Gipuzkoako Hezkuntzako Ordezkarria: Gema González de Txabarri

Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza: Jorge Arévalo Turrillas, kargu horretan bertan jarduna aurreko gobernuetan.

- Lanbide Heziketako Zuzendaritza: Ramón Martínez de Murguía.
- Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza:

Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza: Itziar Alkorta Idiákez, EHUko Kalitate eta Berrikuntzako Erretoreorde zena.

- Unibertsitate Zuzendaritza: Zuriñe Gomez de Balugera Lopez de Alda
- Zientzia Politikarako Zuzendaritza: Miren Begoña Urrutia Barandika

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza: Olatz Garamendi Landa, EAJkoa, Azpiegitura eta Kontratazioetarako Gerenteordetzako buru izandakoa

- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza: Konrado Mugerza
- Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritza:

Sail horretako beste Sailburuordetzak:

Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza: Joxean Muñoz, idazlea eta gidoigilea, 2010. urtea arte Donostiako Tabakalera proiektuaren arduraduna.

Hizkuntza Politikako Sailburuordetza: Patxi Baztarrica, aurreko gobernuetan ere kargu horretan jarduna.

Eusko Jaurlaritzaren 2013ko ekitaldirako aurrekontuari dagokionez, azken egunotan komunikabideetan argitaratutako albisteak baino ezin ditugu aipatu: martxoaren 12an aurkeztuko diola Gobernuak Eusko Jaurlaritzari aurrekontuaren proposamena, eztabaidatzeko, eta behin betiko onespena apirilaren amaierarako egingo dela, seguru asko. Eusko Jaurlaritzaren osaera politikoa kontuan hartuta, EAJk aurkeztutako aurrekontua onartzeko beharrezkoa izango da PSE edo BILDUren aldeko botoa edo abstentzioa, bestela 2012ko aurrekontua luzatuko bailitzateke.

4.- "LOMCE" hezkuntzako lege berriaren Proiektuari buruzko azken albisteak

Abenduan zehar, Hezkuntza Ministerioa bitan elkartu da Autonomia Erkidegoekin (abendua 5ean eta 19an, hain zuzen ere). Biler horietan lege zirriborro bat eztabaidatu da, iraila hasieran aurkeztutakoaren nahiko desberdina. Argitaratutako zenbait albisteren arabera, Abenduan aurkeztutako azken zirriborroan bildutako aldaketak, Alderdi Popularreko autonomia erkidegoetako agintarien presioen ondorio izan dira, hain zuzen ere, lege berriari irakaskuntza pribatu eta hitzartuaren aldeko tresnak emateko helburuarekin eta erlijioaren ikasgaia lantzeko xedez. Lege proiektu horrek planteamendu ugari ditu aditzera ematen dutenak erreforma atzerakoia, klasista, bereizlea, baztertzaila eta zentralizatzailea dela esateko. Hona hemen neurri aipagarrienetako batzuk:

Mugatu egiten du ikastetxeen kudeaketan familiek duten parte-hartzea. Eskola Kontseiluaren-OOGren eskumenak aldatu egingo dira, halako eran non orain horien onspena behar den gaietan (proiektuak eta arauak onartu, urteko programazioa, ikasleen onspena...), lege berriaren arabera horiei kontsulta egitea eta ebaluatzea baino ez litzateke behar. Ikastetxearen Zuzendaritza hautatzeko modua ere aldatu egiten da: orain ikastetxe bertako hezkuntza komunitatearen kideek osatutako Batzorde batek hautatzen du, eta lege berriaren arabera, batzorde horretan administrazioaren ordezkariak gutxienez % 50ekoa izango litzateke.

- **Bereizlea** da zailtasun gehien dituzten ikasleekin ("talentuen" arabera bereizketa egiten du, aniztasunari erreparatu gabe), eta horiei, hasieratik markatzen zaizkie **ibilbideak**; era horretara, gaitasun eskasa eta prestakuntza ezin txarragoa ematen zaie. Horren ondorioz, ikasleek ez dute benetako laguntzarik, Hobekuntza Programa ez da DBHko 2. maila arte aplikatzen eta ikasteko arazoak dituzten ikasleak baztertu egiten dira, LH gutxietsi batean, traba egiten duen guztiaren kutxa bihurtuz; **froga eta amaiera azterketa** idatzi **ugariak** (ikasleak hautatzeko oztopo lasterketa bat bihurtzen du hezkuntza, eta haiek hezkuntza sisteman gelditzera animatu beharrean hura uztera bultzatzen ditu) oso garestiak dira, eta prestakuntzari eta pertsonaren garapenari erreparatu beharrean, horiek gaintzeari ematen diote garrantzia. Ikasleen emaitzen arabera **sailkatzen** ditu **ikastetxeak**, eta **ikastetxeen espezializazioa** ez da bakarrik Batxilergoan egiten, baizik eta ikasleen tipologiaren arabera. Hezkuntza sistemaren berdintasunaren amaiera da.
- Hezkuntzaren alorreko eskumenak Administrazio Zentralean zentralizatzeko neurriak ezartzen dira, eta gaur egungo euskal hezkuntza sistemari eraso egiten diote bete-betean. Ikasgaiak hirutan sailkatzen dira:
 - **Ardatzekoak:** edukien % 100 Gobernu Zentraleko Hezkuntza Ministerioak definitzen ditu, eta hark ezartzen ditu, halaber, ebaluazio-irizpideak, eskumenak lortzeko irizpideak, ebaluazio estandarrak eta gutxienezko ordutegia. Ardatzeko ikasgai horiek **Lehen Hezkuntzan** honako hauek izango lirateke: Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Gaztelania eta Literatura, Matematika eta lehen Atzerriko Hizkuntza; eta gutxienez astean 15 ordu

hartuko lukete. **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**, berriz, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura, Matematika eta lehen Atzerriko Hizkuntza izango lirateka.

- **Berariazkoak:** edukiak, gidalerro metodologikoak eta ordutegia (Madrilek ezarritako gehienekoaren barruan) Autonomia Erkidegoetako Administrazioak definitzen ditu. Ikasgai horiek **Lehen Hezkuntzan** honakoak izango lirateke: Hezkuntza Fisikoa, Erlijioa edo Kultura eta Gizarte Balioak, Hezkuntza Artistikoak, Atzerriko bigarren Hizkuntza, ordutegiaren % 50 gehienera. **Bigarren Hezkuntzan:** Hezkuntza Fisikoa, Erlijioa edo Balio Etikoak, Kultura Klasikoa, Hezkuntza Plastikoa eta Bisuala, Ekintzailetzaren eta enpresa jardueraren hastapena, Musika, Teknologia eta Atzerriko bigarren Hezkuntza.
- **Espezialitatea:** edukiak, gidalerro metodologikoak eta ordutegia Autonomia Erkidegoko Administrazioak definitzen ditu. Ordutegia Madrildik beste ikasgaietarako finkatu denaren arabera eta Autonomia Erkidegoak gainerako ikasgaietarako finkatutakoaren arabera izango da. Atal honetan egongo litzateke hizkuntza koofiziala eta horren literatura, gure kasuan euskara, eta Autonomia Erkidego bakoitzak kontuan har dezakeen besteren bat.

DBHko 4. maila Batxilergorako edo LHrako prestakuntza ikasturtea izango litzateke, eta Autonomia Erkidegoen araudiaren arabera eta ikastetxeen eskaintzaren arabera egin ahal izango da (ikastetxe guztiek ez dute hori eskaini beharko?). Modalitate bat irakaskuntza akademikoena izango da (Batxilergoan) eta beste bat irakaskuntza aplikatuena (LH).

Horrez gainera, autonomia erkidegoetako administrazioek hizkuntza koofiziala gaztelaniari buruz era berezian landu ahal izango dutela adierazten da "arrazoizko proportzioan", baina horrek ez duela "**gaztelaniaren bazterketa**" eragin behar (*B eredu bakarra?*).

- Zentralizatzeko asmo horretan sakonduz, legeak hainbat froga-azterketa egin behar direla adierazten du, ikastetxeetatik kanpo diseinatuak, eginak eta zuzenduak, eta Administrazio Zentralaren arauen arabera. Hona hemen aipatutako froga horiek:

- Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluazioa (6. mailan): ikasleak behe, erdi eta goi mailakoak diren esango da. Hezkuntza Ministerioak finkatuko du (Autonomia Erkidegoei kontsulta egin gabe) eta ikastetxetik kanpoko irakasleek ebaluatuko dute. Hizkuntza gaitasunak, matematika eta zientzia sartuko dira. Familia eta Bigarren mailako ikastetxeak txosten bat izango dute, eta ikastetxeak hobetzeko planak finkatu ahal izango ditu.
- Batxilergora igarotzeko, DBHko 4. maila amaierako azterketa gainditu behar da, ikaskuntza akademikoan hautaketaren bitartez. Ez da nahikoa DBHko 4. maila gainditzea, amaierako azterketa horretan gutxienez bosteko nota lortu behar da. Ardatzeko ikasgaiak eta berariazko ikasgai bat (ez Erlijioa ezta Hezkuntza Fisikoa ere) ebaluatuko dira, hizkuntza koofizialaz gainera.
- Batxilergoko titulua lortzeko, amaierako beste azterketa bat gainditu behar da, eta horretan ardatzeko ikasgaiak eta berariazko ikasgai bat gainditu beharko dira (ez Erlijioa ezta Hezkuntza Fisikoa ere), hizkuntza koofizialaz gainera. Batxilergoko ikasgai guztiak gainditu behar dira eta beharrezkoa da gutxienez bosteko nota edukitzea; urtean bi deialdi izango dira. Tituluaren amaierako nota frogaren % 40ak eta batxilergoko noten batez bestekoaren % 60ak osatuko dute. Amaierako azterketa hori gainditzen ez bada, ikasleak ziurtagiri bat lortuko du.

Unibertsitaterako sarbidea: unibertsitateek sartzeko berariazko frogak egin ditzakete (batera ere egin dezakete), eta batxilergoko notaren % 60ari eta unibertsitateko froga horren % 40ari erreparatuko diote.

- Lege proposamenak hezkuntza pribatu-hitzartuaren aldeko neurriak hartzen ditu, irakaskuntza publikoaren kaltetan. Besteak beste honako neurri hauek azpimarratu nahi ditugu:
 - Ikastetxe hitzartu pribatuekiko hitzarmenen iraupena luzatu egiten da, eta lau urtetik sei urtera igarotzen da Lehen Hezkuntzan, eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoren ere hitzarmenak lortzeko aukera ematen du.
 - "Gizartearen eskakizuna" esapidea txertatzen da, ikastetxeetan plaza berriak sortzeko; horren bitartez ikasgela pribatu berriak hitzartu litezke, bete gabeko plaza publikoak egonda ere.
 - Kanpoko frogen emaitzekin ranking-ak argitaratzeko baimena ematen da.
 - Sexuaren arabera bereizketa egiten duten ikastetxe pribatuekin hitzarmenak lortzeko aukera ematen du.

- "Herritartasunerako Hezkuntza" ikasgaia kentzen da eta Erlijioa gaiaren ordutegi zama handitzen; horrez gainera, Kultura eta Gizarte Balioak izeneko derrigorrezko ikasgaia txertatzen da, gainerako ikasgaien batez besteko ordutegiarekin berdinduz. Praktikan, ordubete gehiago eman diezaioke astean ikasgai horiei. Bi gai horiek ebaluatu ahal izango dira eta ez da argitzen espediente akademikoaren batez besteko notarako kontuan hartuko diren. Era horretara, lehen ikasleek Erlijioa hautatzen ez bazuten denbora hori curriculumeko ikasgaiak sendotzen erabil zitezkeen, baina, orain, desagertu egiten da hori eta derrigorrezkoa da Erlijioa edo Kultura eta Gizarte Balioak ikasgaia.

(Lege berriaren proposamena osorik ezagutzeko sakatu helbide honetan:

<http://www.baikara.org/es/wp-content/uploads/2013/01/20121219-borrador-lomce.pdf>)

Eskola publikoaren gurasoen mugimenduarentzat beharrezkoa da euskal gizartea bertako hezkuntza sistemaren alde mugitzea, izan ere, erreforma horrek arriskuan jartzen du gure sistemaren berariazotasuna. Ildo horretatik, EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteak saiatzen ari gara hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuekin (Ikastolen Federazioa, Sortzen Ikasbatuaz, Kristau Eskolak...) Lege horren kontrako mobilizazioak antolatzen. Bi bilera egin dira dagoeneko, eta datozen egunetan gauzak zehaztuko direlakoan gaude. Edonola ere, eta gainerako hezkuntza eragileekin batasunik lortuko ez bagenu, EHIGE, BIHE eta SAREAN elkarteek ikastetxeei hainbat jarduera egiteko proposamena egingo diegu, informazioa emateko eta mobilizatzeko, otsailaren 18tik 28ra bitartean.

Aipatu beharra daukagu, bestalde, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek ere mobilizazioak egitea proposatu dutela, murrizketen inguruko errebindikazioetan txertatuz. Gainerako eragileei beren proposamenarekin bat egitea eskatu bazaie ere, oraingoz EHIGEk erabaki du lehen aipatutako batasuna lortzeko ahaleginean jarraitzea.

5.- Zerbitzu publikoetako murrizketei eta lege aldaketei erantzuteko ekimenak.

Aurreko atalean azaldu bezala, LOMCEren gaia dela eta mobilizazioak antolatzeko aukera aztertzen ari gara. Edonola ere, ahaztu behar ez den beste alderdi bat ere badago, hain zuzen ere, hezkuntzaren alorrean izango diren murrizketei dagokiena. Murrizketa horiek, Estatu mailakoak baino gutxiago izanda ere, dagoeneko aplikatzen ari dira Euskadin. Gainera, kezka handia sortzen ari da Eusko Jaurlaritza berriak, diru sarreretan izan diren murrizketak direla eta, har ditzakeen neurri berrien gainean. Zentzu horretan, hainbat IGE, bereziki Donostialdekoak, BAIKARARA hurbildu dira etorkizunean gerta litezkeen murrizketak direla-eta mobilizazio "prebentiboak" antolatzeko asmoz.

Autonomia Erkidego osoari eragiten dion eremua denez, egin litezkeen mobilizazioak EHIGE Konfederazioaren baitan adostu behar direla uste dugu, eta posible bada BIHE eta SAREAN elkarteekin batera. Urtarrilaren 8an, asteartea, elkarrekin egindako bileran adierazi zen, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen berri ez zegoenez oraindik, ahalegin guztiak LOMCEari kontra egiteko baliatu behar genituela, eta, ondoren, Hezkuntzaren aurrekontuari dagozkion diru kontuak ezagututa, dagozkion neurriak hartzea.

5.- IGEen Jardunbide Egokien Lehiaketaren III. edizioa.

IGE guztiei gogorarazten diegu proiektuak aurkezteko epea apirilaren 19an amaitzen dela. Lehiaketa horretan hezkuntza jarduera guztiak aurkez litezke, soilenetatik hasi eta konplexuenera. Kontuan hartuko dira beste IGE eta ikastetxeetarako eredu izan litezkeen ekimenak, eta zer ahalegin egin den eta izan den borondatea erakustea. Gainera, eta edizio honetarako berrikuntza gisa, Sari Berezi bat emango zaie familien parte-hartze aktiboa sustatzen duten ikastetxeetako proiektuei. Honako hauek izango dira sariak: 1.500 € lehenengo sariari; 1.000 € bigarrenari; 500 € hirugarrenari; eta 1.000 € sari bereziari.

6.- Euskal Eskola Publikoaren XXII. Jaia.

2013ko Euskal Eskola Publikoaren jaiak ekainaren 2an izango da, Araban, MURGIAN hain zuzen ere. "HAZIAK INDARTU" izango da jaiaren leloa eta une honetan logoa hautatzen ari dira. Logoa egiteko prozesuan atzerapena izan denez, publizitaterako materialetan ere (kartelak, arropa...) atzerapena egongo da beste urteetako egutegiaren aldean.

7.- Beste gai batzuk.